

IPUINA

ARTZAIA ETA SOLDADU HILA

Mieltxo artzaiak danbada hurbil bat aditu zuen eta gero berehala beste batzuk,... Tiro hotsak ziren! Tiro hotsak eta oihuak, heriotz oihuak! Mieltxo bere artaldea Beltza, bere zakur leialaren ardurapean utziz, lasterka abiatu zen doinuak zetozen tokirantz. Lasterka zihoan baina ixilik, bere gorputzaren mugimenduak, baita bere ibiltze soinu ttikiénak ere, haizeak astinduriko hostoen danbaladarekin eta izadiaren orru ezkutuekin nahasten zirelarik. Korrika baina ixilka, jakin-nahiak deiturik baina arrisku hurbil baten izateaz oharturik.

Horrela ibili zen hamar bat minutu luzetan bidegurutze batera iritsi zen arte. Han ez zen inor mugitzen, han ez zitzaion inori aditzen, baina bidegurutze hartako bakardade ixilean, goiz sargoriotsu hartako ixiltasun bakartian, bide bazterrean, etzanda, odoldurik, bizia galdurik,... mutil gazte bat zegoen, begi bietatik azken bizi hatsak zihozkiolarik. Bere aldameñan fusila, bere idealen defentsan erabilitako lanabesa seguru aski, eta metro batzuk haruntzago, belar urdinen artean erdi galdurik, txapel gorria, bere borrokaren seinale eta leku-



Gerra garaia zen, eta euskaldunek Euskal Herriaren alde jo zuten

ko. Mutil jatorra bere musuak argi aski erakusten zuen bezala. Gazte lorean zegoen, heriotzaren segadunak bere bizi enborra moztu zuen arte.


Mieltxo begirune haundiz belaunikatu zen gorpuaren aurrean, bere masailetatik malko mindu ixilak zirriztratzen zitzaizkiolarik beren gardentasun birjinaz artzaiaren larru gorri gogorra pailakatuz, bustiz. Bere esku lakartuek soldaduaren eskumutur zuri hotza hartu zuten goxotasunez estutuz, bizitzaren azken itxaropenak aurkitu nahiean, baina alferrik, gaztea hilik baitzegoen, hilik eta odoldurik belar gainean, bere odol gorriaren bitartez heriotzaren ankertasuna adierazi nahiko balu bezala. Hilik zegoen, gorpua zen. Ez zegoen zer egiterik. Samina artzaiaren zainetatik barrena abiatu zen bere muinak berotasun astun batez bortizki kolpatuz. Bere eskuak itxi ziren bere hatzaparren indarraz, barruan irekiten sumatzen zuen amorru itsua ito nahiean.



...eta orain hortik barrena, nonbait ibiliko dira tiroka, Euskal Herriaren libertateak defenditzen.

Mieltxoren begiak itsuturik zeuden, malko gordinez estalirik. Ahoa mututurik, ezinaren amorrazioz beterik, eta bere gorputza osoa mugitu ezinik, izerdi heze batek geldierazirik. Dena den, bere errainetan, bere bihotzaren bazter sakonenetan su bero gartsua pizten ari zen, bere baita osoa sukar haundi batez kutsatuz, bere garuna eta bere gogoetak kixkaliz.

Gure artzaia zegoeneko ez zen gaztea, bere urterik hoberenak aspaldi joanak baitzituen, baina hala eta guztiz ere, oraindik sasoian zegoen. Ez zen motela gure artzaia eta bere gorputzean gure menditarren indarra ikus zitekeen oraindik. Horrexegatik, adinean sarturik zelako, ez zen Mieltxo bere inguruko beste mutilekin batera gudatera abiatu. Horrexegatik eta baita baten batek ardiak zaindu behar zituelako ere. Patziku eta Joanes bere anaia gazteak alde eginak ziren aspaldi, attak lehendabiziko karlistadan erabilitako eta urte luzeetan eihan kontu haundiz ezkututako fusilak eramanez. Eta orain hortik barrena, nonbait ibiliko



*Gerra guztiak
dira ankerrak,
baina
ankerragoak
oraindik,
askatasunik
gabeko pakeak.*

ziren tiroka Euskal Herriaren libertateak defenditzen. Edo agian hilik egongo ziren, bere aurrean lurrean zerraldo etzanda, odoldurik, ... zegoen soldadu gazte hori bezala. Gernikako Arbolak gorde ditzan bere gerizpean! -pentsatu zuen barne barnetik-

Mieltxok ezin zuen gehiago bere pentsamentuekin, eta bere gogoetak bazterrera botaz eta soldadu hilaren fusila eskuan irmoki hartuz fronte alderantz abiatu zen burua itzuli gabe, atze-atzean gelditzen ziren borda eta ardiak, eta atzeragoan, urruntasunean hodeien artean bere pausuei itzala emanaz gelditzen zen Jaizkibel mendi luze ederra ez ikustearren.

Joseba Aurkenerena Barandiaran